

## Giza enbrioiak genetikoki eraldatu dituzte, lehen aldiz

Lehen aldiz, enbrioiak genetikoki eraldatzeko teknika bat probatu dute giza enbrioietan. Sun Yat-sen Unibertsitatean egin dute esperimentua (Txina), Junjiu Huang iker-tzailearen gidaritzapean, eta *Protein & Cell* aldizkarian argitaratu dute.

Probatu duten teknika CRISPR/Cas9 izeneko konplexu entzimati-koa enbrioietan injektatzean datza. Konplexu hori nahi den genomazatira itsasten da, eta harekin batera sartzen da baita genea eraldatu-ko duen molekula. Orian arte, zelula helduetan eta animalia-enbrioietan probatu dute teknika, eta, Txinako kasuan, helburua beta-talasemia gaixotasuna eragiten duen HBB gene akasduna konpontzea zen.

[Ikerketan azaldu dutenez](#), emal-keta lagunduan baztertutako giza enbrioiak erabili dituzte; alegia, enbrioi horiek ez zuten garatzeko aukerarik, umetokian ezarritz gero. 86 enbrioietan injektatu zuten konplexua, zelula bakarra zutenean, eta zortzi zelula izan arte itxaron zuten. 71 enbrioi iraun zuten bizirik, eta, haietatik, 28tan baino ez zuten arrakasta izan teknikak. Horrez gain, enbrioiak mutazio larriak zituztela ere ikusi dute. Ikertzaileek berek onartu dute emaitza txarra dela, giza enbrioietan erabiltzeko, % 100 arrakasta lortu beharko bailukete.

Giza enbrioiak genetikoki eraldatzeko aukerak lehendik sortzen zuten kezka hauspotu du esperimentu horrek. Hain zuzen ere, joan den martxoan [Nature aldizkarian argitaratutako artikulu batean](#), halako teknikak erabiltzearen aurka azaldu zen aditu-talde bat, arrazoi etikoak eta zientifikoak emanaz. Besteak beste, kezka handia zuten halako tekniken segurtasunaren inguruan.

Aipatzekoa da Txinako ikertzaileek *Nature* eta *Science* aldizkarira bidali zutela haien ikerketa, eta biek uko egin ziotela hura argitaratzeari. ●



# uztaro

Giza eta Gizarte-zientzien Aldizkaria 2015

**UZTARO** aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

**Ordainketa:**

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2015. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00 €

**Harpidetza-txartela:**  
UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA  
Erribera 14, a. D 48005 Bilbo  
Telefonoa: 946790546 Faxa: 946421021  
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus  
[www.uztaro.com](http://www.uztaro.com)



Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 48005 Bilbo.

Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoa markatu edo idatzi helbide elektronikoko honetara: [argitalpenak@ueu.eus](mailto:argitalpenak@ueu.eus)